



ALEA

arabako aldizkaria

BEATRIZ HERRAEZ

**"ARTEAZ GOZATZEKO,
GAKOAK ESKAINI
BEHAR DITUGU"**



**LAGUN GAITZAZU
BIDE-SEGURTASUNA HOBETZEN**

**Autoan,
errespeta itzazu
zebra-bideak**

Bete ditzagun arauak



ALEA 183

2019-02-22 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:
ERLANTZ ANDA

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Igeriketa artistikoa lantzen du Urdantza taldeak.
- 8 **Protagonista.** Beatriz Herraiez, Artiumeko zudendaria.
- 12 **Iritzia.** 'País petit', Iñaki Lazkano.
- 13 **Iritzia.** 'Hitzaren indarra', Cira Crespo.
- 14 **Sarean.** #Arteaklreki.
- 16 **Gizartea.** Arabako basoak.
- 18 **Gizartea.** Eskola bat nahi dute Ozetan.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Kultura.** Logaritmoak, arkeologo lanetan.
- 24 **Kultura.** 'Chejov vs. Shakespeare' proiektua.
- 26 **Kultura.** 'Errementari' eta 'Oreina' Euskal Zinemaren Astean.
- 27 **Kultura.** 'Tatuajea', David Mangana.
- 28 **Gure bazterrak.** Bastida.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena“

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Miriam Biteri

Esti Lanao

Estibu Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7.bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Asteko kolaboratzaileak: David Mangana, Iñaki Lazkano eta Cira Crespo.

ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Igeriketa eta dantza arteko kirol ikusgarria

Arabar ez da erraza igeriketa artistikoa praktikatzea, herrialde osoan klub bakarra dagoelako gaur egun. Gasteizen dago eta Urdantza du izena. San Andres udal igerilekuetan izan da ALEA erakustaldi bat ikusten eta kirol jardueraren zehetasun guztiak ezagutzen.

Testua: **Mirian Biteri.**
Argazkiak: **Urdantza eta Mirian Biteri.**

Klub gaztea da Urdantza. 2012 urteko udazkenean sortu zen Gasteizen, igeriketa artistikoaren edo sinkronizatuaren inguruan sortutako interesa zela eta. Hasieran, 37 neska baziren ere, gaur egun, 5 eta 18 urte bitarteko 70 bat igerilari ditu. Kostata baina gora doan kluba da, eta horren erakusle da iaz infantil eta junior mailetakoko 19 igerilari federatu zirela lehen aldiz; modu horretan, Euskal Herriko igeriketa federazioak antolatzen dituen txapelketetan parte hartzen hasi ziren. Ez zen samurra izan, federatu ahal izateko proba bat gainditu behar izan zutelako aurretik: "Probak pasatu eta ofizialki hasi ziren igerilari arabarrak bizkaitarrekin eta gipuzkoarrekin lehiatzen. Aurrerapausu handia izan zen hori guretzako", azaldu du Urdantzako zuzendaritza batzordeko Agurtzane Zigarane.

Lehiatzen, baina, lehenago hasi ziren: Arabako ligan, hain justu. Kontuan izan behar da, dena dela, herrialdeko klub bakarra dela Urdantza, eta hortaz, liga klubarena ere badela. "Euren artean lehiatzen dira. Ondo datorkie txapelketak zelakoak diren ikusten joateko eta Euskadiko txapelketara begira ikasteko", azpimarratu du. Bestalde, erakustaldiak ere antolatzen dituzte; hiruhileko bakoitzeko bana, gutxienez.

Gogor entseatzeko dute kirol jarduera honetan. Txikienak astean hiru bider joaten dira ikasturtean zehar San Andres o Lakuako udal kiroldegietara bi orduko saioak egitera; uretakoak zein uretatik kanpokoak dira. Helduagoak, oster, egunero dituzte entseguak.

Besteak beste, mugimendua, malgutasuna eta indarra behar dira igeriketa artistikoan.





Taldeka, binaka edo banaka egin daitezke errutinak; goiko irudian, erakustaldi batean taldeka egindakoa.

"IGERIKETAN ETA DANTZAN MUTIL ASKO DAUDE; BIAK UZTARTZEN DITUEN KIROLA DA GUREA"

AGURTZANE ZIGARAN

Horrez gain, oporretan, hainbat egunetan ere elkartzen dira.

"Gabonetan, esaterako, federatutako neskek teknifikazio saioak izan zituzten hiru egun jarraian, goizetan. Kanpoko entrenatzaile bat ekarri genuen egunerokoetan praktikatzen ez dituzten gauzak egiteko".

Zigaranez adierazi du arazoak dituztela entrenatzaileak bilatzeko, kluba gaztea denez harrobirik ez duelako eta kirola bera "nahiko ezezaguna" delako: "Kanariar, sevillar eta donostiar bana ditugu orain taldeak gidatzen. Benetan, zaila da topatzea; horiek ordezkatzeta da gehien kostatzen zaiguna".

Baina, egoerari aurre egiteko bidea bilatzeari ekin diote, eta, datorren ikasturteari begira, junior mailako hainbat ikaslek izena eman dute begirale ikastaroa egiteko: "Igerilari nagusien artean gogoa eta ilusioa dago eta hori garrantzitsua da, harrobian dago eta etorkizuna", azpimarratu du.

Mutilei gonbita

Ez da esku artean duten erronka bakarra, mutilak erakartzeko ahalegina ere egiten dabilta eta: "Duela urte gutxira arte, mutilik ez zegoen kirol honetan eta gurean, gaur egun, oraindik ere ez dago; eta kanpora lehiatzen joaten garenean bakarra ikusi dugu". Hala, jarduera ezagutzeko gonbita egin du: "Atea zabalik dago. Igeriketan badaude mutil asko, eta dantzariak ere badaude. Biak uztartzen dituen kirola da", nabarmendu du.

Kirol aberatsa da igeriketa artistikoarena, ez agresiboa uretan egiten delako. Besteak beste, mugimendua, malgutasuna, indarra, koordinazioa, sinkronizazioa, erritmoa, talde-lana edo mimika lantzen dira horretan. Horrekin lotuta, bi modalitatetan egiten dute lan Urdantzan: figurak eta errutinak. Azken horiek egiteko lehenago figurak ikasi behar dira. Bata zein bestearen ezaugarriak azaldu ditu Zigaranez: "Figura oinarritzko postura bat da. Errutina figura ezberdinez osatuta dago, musikaz eta koreografiak lagunduta dagoena. Errutinak taldeka, binaka edo banaka egin daitezke. Beste modu batean esanda: alde teknikoena figurak dira, eta ikusgarrienak, berriz, errutinak". Zuzendaritza batzordeko kideak gaineratu du kategoria bakoitzak figura batzuk egiten dituela, eta mailan aurrera egin ahala, horien zailtasuna areagotzen doala.

Interesatuak igerian jakitea baino ez dute behar, eta klubean izena ematea. Bi bide dituzte horretarako: urdantzainkro@gmail.com helbidera mezua bidalita edo 663 52 01 82 telefonora deituta. Amaitu aurretik, zuzendaritza batzordeko kideak eskerrak eman nahi izan ditu, bazkideen lankidetzak gabe ezinezkoa izango litzatekeelako aurrera egitea. ■■■



LIERNI ELORZA, LIBE BALZATEGI ETA UXUE ZURBANO

Hori horrela, oso garrantzitsua da bestelako kirolak ere praktikatzea, bakoitzean atal ezberdin bat lantzen duzulako eta errazago lortzen duzulako behar dituzun indarra eta malgutasuna. Taldeari dagokionez, gaztea da; iaz federatu ginen lehen aldiz Euskadiko txapelketan, eta emaitzarekin oso pozik geratu baginen ere, agerian geratu da gainerako taldeekin dugun aldea. Baina, ziur gaude denborarekin eta lana behar bezala eginda, beste klubek duten mailara iritsiko garela gu ere".

"Beste taldeen maila izango dugu denborarekin"

"Esfortzu handia eskatzen duen jarduera da igeriketa artistikoarena; guk, ostiraletan izan ezik, bi orduko entseguak ditugu egunero. Eta, horrez gain, bestelako kirolak ere praktikatzen ditugu. Kontuan izan behar da jarduera honetan indar asko izan behar dugula, besteak beste, gorputza uretatik indar askorekin atera behar dugulako. Eta bestetik, malgutasuna ere ezinbestekoa da.



GARAZI PEREZ DE SAN ROMAN

"Oso txikia nintzela hasi nintzen praktikatzen"

"Lehen Hezkuntzako lehen mailatik nabil igeriketa artistikoan eta orain hamaika urte ditut; oso txikia nintzela hasi nintzen. Beti izan dut gustuko uretan ibiltzea eta lagun baten arrebari esker sartu nintzen honetan; amarekin burugogor jarrita azkenean apuntatu egin ninduten. Oso gustura nabil bai entseguetan eta baita erakustaldietan ere; baina, gogorra ere bada. Uretan sartu aurretik askotariko ariketak egiten ditugu kanpoan".



CLOE PURA

"Koreografiak egitea da gehien gustatzen zaidana"

"Bederatzi urte ditut eta hiru urte dira Urdantzan nagoela. Gauza guztien artean, gehien gustatzen zaidana koreografiak egitea da; errutinak eta entseatzea aspergarriagoa dela iruditzen zait. Baina badakit denetarik ikasi behar dugula koreografiak ondo egin ahal izateko. Bestalde, nagusiak bezala, beste kirol batzuk ere egiten ditut. Dena dela, eta batzuetan gogorra egiten bazait ere, gustura nator eta jarraitzeko asmoa daukat".



IZARO LARREA

"Igerian egitea baino gehiago da jarduera hau"

"Urtebete daramat igeriketa artistikoan; ikastolarekin nator. Beti ibili naiz uretan; txikia nintzenean, aita eta amarekin joaten nintzen igerilekura eta beraiekin ikasi nuen igeri egiten, gero Urdantzakoak ikusi nituen eta nik ere nahi nuela esan nien gurasoei. Igerian egitea baino gehiago da hau; gustukoan dudana errutinak egitea da. Astero hirutan nator entseatzera: egun batean gimnasia egitera, eta besteetan, uretara".

"Kanpora begirako loturak sendotu nahiko nituzke Artiumen"

BEATRIZ HERRAEZ ARTIUMEKO ZUZENDARIA

Herritarrek artera gerturatu eta goza dezaten "erramintak jartzea" izango da Artiumeko zuzendari berriaren erronka nagusietako bat. Horrekin batera, besteak beste, euskal arteak nazioartean eragiteko bideak bilatzea eta zentroaren politiketan parekidetasuna bultzatzea ditu helburu datorren urterako.

Testua: **Anakoz Amenabar** Argazkiak: **Erlantz Anda**

Motxila beteta, etxera bueltatu da Beatriz Herraez (Gasteiz, 1974). Arte garaikideko ikerlari eta erakusketa komisario moduan, besteak beste, Reina Sofia museoan, New Yorkeko Sculpture zentroan edota Donostiako

Tabakaleran ibili ostean, Daniel Castillejoren lekukoa hartu du Artiumeko zuzendari modura. Artearen Historia eta Arte Ederretan lizentziaduna, urteetako eskarmentua baliatu nahi du Gasteizko zentro museoak nazioarteko praktika artistikoetan eragiteko, eta horiek, aldi berean, Artiumera erakartzeko.

Nolakoa izan da hasiera? Trantsizio urtea izango da 2019a?

Abenduan heldu nintzen, eta patxadaz ezagutzeko aukera izaten ari naiz. Lantaldea eta 2019rako prest zeuden proiektuak ezagutu ditut, poliki-poliki murgiltzen. Aurtengo programazioa itxita dago, noski, eta, beraz, pentsatu, ikertu eta proposamen berriak egiteko denbora izango dut datorren urtera bitartean.

Zerk erakarri zintuen Artiumetik, zure proiektua aurkezteko?

Ondo ezagutzen dut Artiumen bilduma, museoaren historia eta testuinguru artistikoa, hirikoa zein Euskal Herrikoa. Joan-etorrian ibili naiz beti, Madril, Paris eta Euskal Herriaren artean, eta kanpoan izan arren, hemengo artistekin elkarlanean askotan. Artiumen parte izateko aukera atera zen, eta pentsatu nuen, hain zuzen, modua zela nolabait ibilbidea hasi nuen tokira bueltatzeko. Arteari buruz idatzi nuen lehen testua Itziar Ocarizen obra baten ingurukoa izan zen, Arabako Arte Ederretako obra baten ingurukoa, gaur egun Artiumen bilduman dagoena. Joan-etorri honek zerbait interesgarria ekar dezakeela uste dut; zentro museoan egiten ari denari buruzko kanpoko ikuspegi bat aberasgarria izan daiteke elkarreragina lantzeko. **Lehen gainbegiratuan, aldaketa nabarmenak ala txikiak behar ditu Artiumek?**

Hiri guztiek arte garaikideko ekipamendu bat izan nahi zuten euforia handiko garaietan sortu zen, baina desberdintasun handi batekin: Artiumek eraikinaren aurretik ondare bilduma garrantzitsua bat zuen. Orain, uste dut momentua dela pentsatzeko zer nolako harremana duen museoak kanpoan egiten denarekin; hortik etor daitezke



beharbada aldaketa txikiak, iraultza handiak ekar ditzaketenak. Pendiente dugun gaia da hori: nola jarri harremanetan EAEn egiten diren praktika artistikoak estatuan eta beste herrialde batzuetan egiten denarekin. Urte garrantzitsua da, gainera, Veneziako Biurtekoan bi euskal artista –Itziar Okariz eta Sergio Prego– eta komisario bat –Peio Agirre– izango direlako Espainiako pabiloian. Bada garaia euskal artea eta beste batzuen arteko elkarrekintza sendotzeko; eta Artiumen erronka nagusietako bat hori izango da, kanpora begirako loturak sendotzea. Beste alde batetik, bildumarekin lan egiteko modua izango da ikusi ahal izango den beste aldaketa bat; kronologia zehatzekin aurkeztuko dugu bilduma, eta ez hainbeste gaiaren arabera. Irakurketa horren bitartez, non gauden, nora goazen eta zer falta zaigun pentsatzen lagundu nahi dugu; alegia, bildumak pieza hauek ditu, baina hutsune hauek ere baditu, eta horiek markatu nahi ditugu.

Lehentasunen artean izango da obra berriak eskuratzeara?

Bai, bada apustuetako bat. Hainbat urte egon dira obrak eskuratu ezinik, eta hori berreskuratu behar dugu. Museo baten lana hori ere bada, ondarea

osatzea. Guztion memoria den ondarea. Museoan murrizketa handiak izan dira, baina bada borondate bat erakundeen aldetik hori aldatu eta inbertsio handiagoa egiteko.

Unean uneko erakusketetan zer nahi zenuke ikusi?

Museoa eta kanpoko harreman hori indartuko duten erakusketak ikustea gustatuko litzaidake. Harreman hori sendotuko dutenak, sinergia bila beti. Eta beti kronologia historikoari lotuta. 80-90 hamarkadetan hasiko dugu hurrengo urteko bildumaren erakusketa, momentu hori mugarri izan zelako eta aurrera eta atzera egiteko aukera ematen digulako. Garai horri berrikusi ahal izango dugu eta beste alor batzuetan egiten zen lanarekin lotu; musikan, praktika performatiboetan edota arte eskoletan gertatzen zena ezagutuko dugu, horiek guztiak erakusketaren diskurtsoan barneratuta egotea nahi dugu.

Publiko gehiagora heldu nahi duzula esan zenuen aurkezpenean. Nola egiten da hori?

Arte garaikideetara gerturatzeko erraminta nahikoak emanez; publikoari ez zaio esan behar zer ikusi behar duen, baina ibilbide desberdinak proposatu behar zaizkio, artean murgiltzeko beharrezko gakoak publiko desberdinari. 90.



Daniel Castillejok utzitako zuzendaritza kargua hartu du Beatriz Herraizek. ERLANTZ ANDA

"KRONOLOGIKOKI AURKEZTU NAHI DUGU ARTIUMEN BILDUMA, 80. HAMARKADATIK HASITA"

"ARTEAREN IRAKURKETA ETA SARRERA GAKOAK BEHARREZKOAK DIRA MUSEOAN"

"ZENTZU ASKOTAN ERRESISTENTZIA EREDU BAT IZAN ZEN MONTEHERMOSO"

hamarkadan aipatzen hasi ziren "hezkuntza biraketa" delakoak hori esaten zuen, hain zuzen: bitartekaritza lana. Alegia, erakusketa gunea ez da leku bat sartu zaitezkeena klabe batzuk gabe; mundu guztiak ez du formazioa artearen historian eta ez du ohiturarik arte garaikideetan barneratzeko, horregatik ezinbestekoa da erakusketen inguruko programa publiko bat: irakurketa gakoak, arterako sarrera gakoak, beste diziplina batzuen bitartez helduko diren ibilaldiak... Gasteizen, esate baterako, 80. hamarkada momentu garrantzitsua izan zen musikarentzat, eta interesgarria izan daiteke horren bitartez arte garaikidera heltzeko. Lan hori indartu nahi dugu.

Garai hauetan patxadaz erakusketa bat ikustea... Haize kontra zoazen sentsazioa duzu?

Askotan bai. Arte garaikideak ospe txarra izan du garai luze batez, leku hermetiko eta eskuragaitza balitz bezala, eta uste dut gauza guztietan bezala irakurketa gako batzuk behar dituzula baloratzera sartzeko. Baina kontzertu batera doana bezala; gero ona edo txarra den erabakiko duzu. Humanitateetan egon diren murrizketak honi ere eragiten dio, dudarik gabe, eta artea hondar-ikasgai moduan geratzen ari da oinarritzko

ikasketetan. Une honetan, museo eta zentro askok pauso bat eman dute ideia hori tiraka; hezkuntza espazio izan behar dira museoak, debatea eta pentsamendu trukea sustatuko dutenak. Uste dut horra bideratu behar dugula Artium ere; pentsamendu kritikoa modu eraginkorren emango duen museoa, edo behintzat hara joko duena.

Genero ikuspegiak zer garrantzia izango du Artiumen?

Handia. Barnean daramat hori. Montehermoson bost urte egin nituen, eta arrastoa utzi zuen, baina aurretik ere lehentasuna zen niretzat gai hau. Montehermoso aitzindaria izan zen hainbat ataletan, eta erakutsi zuen programa parekide kalitatezko bat egin daitekeela, nazioartean sona izan zuena gainera. Arakis heldu zenean proiektuarekin, 2006. urtean, gogoan dut oraindik nolako zalaparta sortu zuen horrek, baita *a priori* aurrerakoia zirudien jendearen aldetik ere. Eskaintza parekidea izanik, jendeak zalantzan jartzen zuen kalitatezko programa bat egin zitekeen. Zentzu askotan erresistentzia eredu bat izan zen, eta hamaika urte beranduago uste dut balioa onartu zaiola horri. Denok onartzen dugu egin beharrekoa egin genuela.

Alde horretatik, gabeziak ditu Artiumek? Neurriak hartuko dituzu?

Erakunde guztietan bezala, hemen ere zenbatu egin behar da. Zenbatzen ez duzunean frogatuta dagoelako parekidetasuna ez dela bermatzen. Atentzioa jarri behar zaio, bestela ez dira zifrak ateratzen. Pentsatu behar dugu emakumeek espazio hauetan ordezkaturik ikusi behar dutela beren burua; biztanleriaren erdiak, hain zuzen. Gure erantzukizuna da, eta abian jarriko dugu erosketa politiketan, erakusketa politiketan... Bildumarekin hori da atentzioa ematen duen lehenengo gauza, erakusketa kronologikoa aurkezten duzunean hutsune horiek dira nabarmenenak; noski, momentu historiko batzuetan oso zaila da hutsune hori betetzea, baina ez da posible arte garaikideko atalean eredu horiek errepikatzea. ■■■

"Abangoardia historikoetan sekulakoa da Pompidou"

Xabier Arakistain 'Arakis'.

Aitzindaria izan zen pentsatzen nola barneratu behar ziren emakumeak praktika artistikoetara. Ildo horretan gogor egin zuen lan Montehermoson, eta hala jarraitzen du gaur egun erakusketa desberdinak antolatzen.

Reina Sofia museoa.

Batik bat bildumen atalean egin nuen lan. Aldaketa handia izan zen; Montehermoson artistekin lan egitetik material historikoarekin lan egitera igaro nintzen, eta esperientzia garrantzitsua izan zen. Oso lan exigentea izan zen, ondarearen ideia giltza delako Reina Sofiarentzat, eta horren inguruan egiten den ikerketa eta kontserbazio lana itzela delako. Lehen abangoardien inguruan egin den lana bikaina dela uste dut, eta, hain zuzen, ederki betetzen du bere funtzioa: primerako historia kontalaria da.

Museo bat?

Reina Sofiarekin batera, hori berezia baita niretzat, gehien gustatzen zaidanetako bat Pompidou da. Duen ondare guztiarengatik bakarrik bisitatu beharrekoa dela uste dut, eta nabarmendu beharrekoa. Abangoardia historikoetan, bereziki, sekulakoa dauka.

Artista bat?

Itziar Okariz. Elkarlanean aritu gara hainbatetan. Harekin proiektu bat egin nuen Tabakaleran, hain zuzen, Itziarren lana testuinguru desberdinetan nola jasotzen zen kontatzen zuena. Maria Luisa Fernandez ere, esate baterako, oso artista interesgarria dela uste dut; euskal eskultura garaikidean nabarmendu beharrekoa artista da, Elena Mendizabalekin batera.



Inauterietan
Kanta! Dantza!
Epa Txiki! Indi-Jones
Kontratazioak Ttipia 945243828

The advertisement features a stage performance on the left with several dancers in colorful costumes. On the right, a man in a green shirt and brown pants stands next to a large, colorful world map graphic. The text is in bold, colorful letters, and the overall theme is festive and international.

País petit



IÑAKI LAZKANO
EUSKARA TEKNIKARIA

Nire herrialdea hain da txikia, ezen eguzkia lotara joaten denean, inoiz ez da guztiz seguru hura ikusi izanaz. Eta egun hauetan are txikiagoa da ene bigarren aberria; are txikiagoa, hamabi aulkitan kabitzen baita herrialde osoa eta bere duintasun guztia. Eta eguzkia ezkutatu da gaur ere, baina ez dago ziur herrialde txiki hori ikusi duenentz; izan ere, egun hauetan ez baita egon betiko tokian, egun hauetan lekuz aldatu baitute bortxaz, Poliziaren ibilgailuetan atxilo eta derrigorrez; egun hauetan Madril aldera lekualdatu baitute.

Egun osoak, bata bestearen atzetik, eta eguzkiak, lotara joan aurretik, ez du jakin izan norantz begiratu, herrialde oso bat galdu baitu ziega eta Gorenaren itzaletan.

Egun ilunak, hitsak...adierazpen askatasuna, justizia, demokrazia, botere banaketa, proportzionaltasuna eta tankerako hitzek epaileen komuneko zulotik behera parrast egin duteneko egunak.

Baina, hala ere, ilunabarrean, egun eta ordu ezberdinetan, izan da itxaropenik egunez galdutako herrialdearen izpi zantzu ahul batzuk sentitu baititu eguzkiak, txiki baina ozen, umil baina harro, herri ezberdinetako plaza eta kaleak horiz koloreztatuz.

Tamalez, gaua heldu, eta denok gure etxeetara erretiratu ahala, eguzkiak bere herrialde txikia galdu du berriro, eta hamabi auzipetuek beren ziegetara bueltatu behar izan dute egunero togadunek hala aginduta eta poliziek eskuburdinak ipinita.

*"El meu país és tan petit
que sempre cap dintre del cor
si és que la vida et porta lluny d'aquí
i ens fem contrabandistes,
mentre no descobreixin
detectors pels secrets del cor".*

Eta horretan gabilta gu eta milaka hiritar kataluniar gau eta egun, bihotzeko sekretuen muga-pasan, elkartasun trukean. Kontrabandistak gara, eta bi herrialdeen arteko zubiak zeharkatuko ditugu, harat eta honat. ■■■

**HAMABI AULKITAN
KABITZEN DA
HERRIALDE OSOA ETA
BERE DUINTASUN
GUZTIA**

Hitzaren indarra



CIRA CRESPO

HISTORIALARIA

Hizkuntzak elkarrizketak dira. Bestearen beharra dute eta enpatiatik sortzen dira. Umeak egun batez bere banakotasunaz konturatzen dira, beste pertsonak ere existitzen direla ohartu eta komunikazioaren grina agertzen da. "Egarri naiz" eta "ura" esaten dute, eta mundua aldatzen da: hurbilekoak laguntzen diolako. Berez, magikoak dira hitzak.

Lehen hitzarekin erabakia hartzen duzu: zure komunitateak elkarri eragitea. Hizkuntza bat baino gehiago menperatzen baduzu, erabakia kontzienteagoa izaten da. Zeinekin hitz egin nahi duzu? Norekin nahi duzu elkarreragin? Gero gauzak korapilatu egiten dira. Beharrak sakondu egiten dira. Agian, zure buruarekin hitz egin nahi duzu. Agian, zerbait gogoratu. Horregatik, hizkuntza finkatu nahi baduzu, hitzak orri zuri bati lotzen dizkiozu: idazketa.

Idazketa denboraren poderioz mantentzen denez, ekintza sakonagoa izan daiteke. Izan ere, idazten duzun bitartean, munduak birsortzen dituzu, edo esanahi ezberdinez betetzen duzu mundua. Ez da bakarrik zure aurrean dagoenarekin hizketan egitea, baita zure arbaso eta gerokoekin harremana sortzea ere. Are gehiago, hizkuntza batean idaztea aukeratzen duzunean, sistema kultural oso batekin mantentzen duzu elkarrizketa.

Imajina ezazue neskato bati buruzko ipuin bat. Egun batean, bere herritik eta bere hizkuntzatik aldendu behar izan zuen. Inork ez zekien bere izena, amak ipinitakoa. Ez ahazteko, noizbehinka ozen esaten zuten, baina beldurra zeukan. "Eta ni desagertzen naizenean, nor gogoratuko da nire izenaz?". Egund batean emakume zahar batek teknika berri bat irakatsi zion: idazketa. Horrekin bere izena jarri ahal izan zuen, eta izena mantendu. Izena finkatuta ikusi zuenean, esanahiez betetako ikurrarekin, negarrez hasi zen, pozik. Ikusi duzuen bezala, nortasunari buruz ari gara hizketan.

"Ez dut munduan ezagutzen hitzaren indarra daukan beste ezer. Batzuetan, hitz bat idazten dut eta hari begira geratzen naiz, dirdirka hasten den arte", esan zuen Emili Dickinsonek. Idazketarekin airean dauden hitzak etorkizunari lotzen dizkiogu, gure identitatea islatzeko eta elkarrizketa imajinaezinak mantentzeko. Ikusi duzuen bezala, hitzak magikoak dira. Hori dela eta, hemen nago ni: nahiz eta katalanez idazten dudana nire izena beti, euskeraz idazten saiatzen naiz, hitz arrotz bakoitza kontuz aukeratzen dut, eta begira geratzen natzaio, hitza dirdirka hasten den arte. Eta zergatik ahalegina? Bada, nire joko-lagunen mundua partekatu nahi dudalako, etorkizunerantz doan elkarrizketa honezkero luze honen parte izanez. ■■■

**IDAZTEN DUZUN
BITARTEAN, MUNDUAK
BIRSORTZEN DITUZU,
ESANAHI DESBERDINEZ
BETEZ**

SAREAN

@ANAMENABAR

#ArteakIreki

Hautsak harrotu ditu Eusko Jauralaritzak ikuskizun publikoak eta aisialdi jarduerak arautuko dituen dekretuak. Besteak beste, taberna eta areto txikiek urtean hamabi ekitaldi baino ezingo dituzte antolatu. Dekretua bertan behera uzteko eskatu dute ostalaritza eta kultur arloko hamaika lagunek, eta kultura "babesteko" deia egin dute Arteak Ireki plataformaren bidez. ■



JOSU BERGARA
@josubergara

Hasieratik taberna eta areto txikietan aritu garenok badakigu nolako garrantzia duen arazo honek: mesedez, kulturari erasorik ez.
#ArteakIreki



LIBE
@libemusika

Kulturaren kontrako erasorik EZ! #ArteakIreki



**REVOLTA
PERMANENT**
@revolta_music

Areto txiki, taberna, gaztetxe eta abarretan eraiki dugu Euskal Herriak duen kultura aniztasuna. Ekosistemaren zati bat erasotzen dutenean, horren parte garen guztiak erasotzen gaituzte. Kulturaren kontrako erasorik ez.



LUTXO EGIA
@lutxoegia

Bira Kulturaren 2019ko urtarriletik martxora 18 musika-emanaldi. Zeozer gaizki egiten ari gara. Eta urtean 12 futbol-partida ezarriko bagenitu? #OrduanZer #BaimenikEz



KONPOST
@konpostaldea

Kontzerturik ikusi duzue asteburuan taberna edo gazteteren batean? Edo bakarrik lanera joaten zarete?

OTSAILAK 23
Larunbata 17:30
ARAMAIO,
Kultur etxean

Gaiemak: Eki Plazaren Zubiaerrera
www.bertsazale.eus

Xabier Igoa Erite

Manuel Bendaia Garcia-Donas

Unai Ansa Delika

Benat Garaio Mendizaba

Peru Abarrategi Serrionaindia

Andere Arriolabengoa Bengoa

IRUDITAN



Atzera kontua hasi dute saskibaloizaleek

Irudi berri batek hartu du Andre Maria Zuriaren plaza, 'Vitoria-Gasteiz' hitz erraldioen alboan; Euroligako Lauko Finala heltzear dela iragartzeko, metalezko hitzak paratu dituzte plazan, eta Buesa Arenako hitzorduaren logo ofiziala ere aurkeztu dute. Maiatzaren 17, 18 eta 19an jokatu den Europako saskibaloitxo txapelketa nagusia urteko kirol hitzordurik garrantzitsuenaz izango da hiriburuan, eta dagoeneko atzera kontua zenbatzen hasi dira zaleak.

Argazkia: Esti Lanao.



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Arboladiak nagusitzen dira Araba osoan. PHOT.OK

Basoak dira jaun eta jabe

Lurraldearen %62,2 basoek okupatzen dute eta soilik %4 herriek eta azpiegiturek. Gainerakoak nekazaritza lurrak dira. Azken hamar urteetako joerari eutsi dio Arabak, aldaketa handirik gabe.

E. UGARTE LZ. DE ARKAUTE ARABA

Baso eta nekazaritza lurzoruek Arabako %94,7 okupatzen dute; basoek 188.923 hektarea hartzen dituzte eta nekazaritza lurrek, berriz, 98.665 hektarea. Gainerako espazioan hiriak, herriak eta azpiegiturak daude (%4,3). Urterik urtera zifrak mantendu egin dira, aldaketa handirik gabe. Bestalde, Bizkaiarekin eta Gipuzkoarekin alderatuta, Araba da baso eta nekazaritza azalera handiena duen lurraldea. Halaber, kudeaketa publikoko baso gehien dituen herrialdea da, konifero basoen

%63,3 eta hostozabalen %81,5 administrazio publikoen esku baitaude.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko Basoen Inbentarioa egin du Eusko Jaurlaritzaren menpeko Hazi Fundazioak, eta horretan bildu ditu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurzoruen erabilaren arabeko mapak eta zenbait eguneratuak.

Batetik, EAEko basoen azalera jasotzen du inbentarioak, eta horretan biltzen ditu zuhaiztiak eta arbolarik gabeko espazioak, alegia larreak, sasiak edo harkaitzak.

Arabako kasuan, baso-azalera gehiena arboladiak okupatzen dute (%76,7); eta horien artean nagusitzen dira hostozabalen basoak: pago arruntak (*fagus sylvatica*), erkametzak (*quercus faginea*) edo arteak (*quercus ilex*). Hostozabalen baso gehienak (%81,5) publikoak dira.

Koniferoen basoetan, berriz, pinu gorria (*pinus sylvestris*) gailentzen da pinu beltzaren aurrean (*pinus radiata*). Inbentarioaren arabera, Mediterraneoko isurialdetako mendi publikoetan zabalitzen den espeziea da pinu gorria. Helburu ekonomikoarekin sartu zen pinu mota hori, eta hotzari aurre egiteko gaitasuna medio, Arabako mendebaldeko mendietan hedatu da, eta Nerbioiko haranera ere zabaltzen da azken urteetan. Pagoarekin eta erkamezarekin nahastu da, gainera.

Banaketa, eskualdeka


EAEko basoen inbentarioak Araba sei eskualdetan aztertu du, eta horietan lurra nola banatzen den jaso du; herrialdeko joera orokorra nagusitzen da, alegia basoek eta nekazaritza lurrek okupatzen dute espazio gehiena; baina eskualde bakoitzak badu bereizgarriak, bere jarduerak ekonomikoarekin lotuta.

Hala, Arabako Errioxan, mahastiek hartutako azalera nabarmentzen da. Izan ere, 31.588 hektareatik 18.907 nekazaritzako lurrak dira (%59,86). Gainerako lurren %36,56 basoak dira, batez ere arteak -1.835 hektarea-; horien jabetza, bereziki, publikoa da.

Beste izaera zeharo desberdina dute Aiaraldeak eta Gorbeia inguruak; hauetan basoek hartzen dute tokirik handiena. Hala, Arabako Kantaurialdeko 33.210 hektareatik %72,65 basoak dira, hain zuzen koniferoen basoak; eta

Lurzorua- erabilera Arabara

Iturria: HAZI Fundazioa



Lurzorua-erabilera Arabara, HAZIren 2018ko inbentarioaren arabera. ARITZ MTZ. DE LUNA

horien artean pinu beltza nagusitzen da (9.709 hektarea). Hostozabalen basoak ere badira Aiaraldean baina kopuru txikiagoan: 2.939 hektarea erkametz dago eta 1.193 hektarea pago arrunt.

Oso antzeko proportzioak aurkitzen ditugu Gorbeialdean. Baso-lurrek hartzen dute eskualdearen %75,26, eta nekazaritza lurrek berri, %19,54. Pago arruntaren hedapena handia da hemen, 6.924 hektarea hartzen baititu, eta ko-

niferoen artean, pinu beltza gailentzen da pinu gorriaren eta larizio pinuaren artean.

Dena dela, hostozabal basoaren paradisua, dudarik gabe, Mendialdean dago. Hazi Fundazioak argitaratutako inbentarioaren arabera, eskualde honetan 14.342 hektarea pago arrunta dago; ametz arruntaren basoek 5.401 hektarea hartzen dituzte, erkametzek 7.627 hektarea eta arteek, berri, 2.914 hektarea. Guztira, Mendialdeko

lurraldearen %78,89 hartzen dute basoek. Nekazaritzak, aldiz, presentzia urriagoa du Mendialdean, lurzoru guztiaren %19,7 soilik okupatzen baitu.

Hostozabalen aurrean, pinu gorriaren aterpea Añanan dago. Eskualde osoaren 11.925 hektarea hartzen ditu zuhaitz mota honek; hostozabalek, bere aldetik, 17.098 hektarea okupatzen dute; eta, guztira, basoek lurraldearen %64,3. Arabako Haranetan nekazaritzak basoak baino espazio txikiagoa hartzen du (%33,1), urteen podediorz hainbat labore eta lur abandonatu egin diren seinale.

Lautadak du baso-lur eta nekazaritza-luraren artean panorama orekatuena. Hala, 80.265 hektareako azaleratik %48,6 hartzen dute arbolek, eta beste %39,9 nekazariak. Baso-espezie nagusiak erkametz (8.012 hektarea) eta pago arrunta (5.606 hektarea) dira. Herrialde osoan bezala, mendien eta basoen kudeaketa eta jabetza publikoa da.

Hiri-espazioa

Herriek, errepideek, meategiek, eta oro har azpiegiturek Arabako azaleraren %4,3 soilik hartzen dute: 13.156 hektarea. Lurralderik naturalenak Mendialdea, Añana eta Arabako Errioxa dira, hiri-lurrak %0,01, %0,29 eta %0,65 okupatzen baitute, hurrenez hurren. Arabako batez besteko parametroetan daude Lautada (%3,46), Aiaraldea (%3,68) eta Gorbeia inguruak (%3,30).



Eskola txikia nahi dute Barrundian

Etxeako Barrundiako gurasoen elkarte bideragarritasun proiektua prestatzen ari da; udalerrian "beharra" dagoela uste du, 2 eta 12 urte arteko ehun ume inguru daudelako gaur egun udalerrian.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Barrundiako udalerrak 1.000 bizilagun inguru ditu, eta horietatik 98 dira 2 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoak. Gaur egun, udalerria osatzen duten 13 herrietatik Agurain edo Dulantzira joaten dira 3 urtetik gorako haurrak egunero ikastera; txikiagoek Haurreskola dute Ozetan. Egoera horrekin aspertuta, Etxeako Barrundiako gurasoen elkarte Ozetan eskola txikia bezalako proiektu bat martxan jartzeko bideragarritasuna aztertzen dabil.

Elkarteak hilabeteak daramatza egitasmo horrekin. Lehenik eta behin, inguruko gurasoei jarri zen kontaktuan helburua zein

den azaltzeko. Horrekin lotuta, zera azaldu du guraso elkarte Mikel Arizti Lopez de Aberasturik: "Aspalditik gabiltza entzuten Barrundian eskola publiko bat zabalduko zela, baina mugimendurik ez zenez ikusten, Etxeakotik eskola txikiaren proiektuaren agintea hartzea erabaki genuen".

Ozetako udaletxe zaharrean

Gaineratu du hezkuntza arloko errealitateari buruzko diagnostikoa egiten hasi zirenean konturatu zirela ume kopurua uste zena baino "askoz handiagoa" zela, eta hortaz, esandako egitasmoa martxan jartzeko "beharra" zegoela. Azpimarratu du proiektua garatu

ahal izateko toki publiko bat ere badagoela udalerrian: hain justu ere, berrituta dagoen Ozetako udaletxe zaharra.

Aixona Saez de Okarizek, bere aldetik, bertako haurrek bere udalerrian ikasi ahal izateko aukera aldarrikatu du: "Oso garrantzitsua da euren artean lotura bat izatea, herri txikietako gertutasuna bultzatze aldera, eta eskola txikiak hori ematen du. Horrez gain, Ozetari bizia ere emango lioke. Despopulazioaren kontrako erreminta ere bada".


Dagoeneko Gipuzkoako hainbat eskola txiki ezagutu dituzte, bertara joanda baina baita proiektu horietako ordezkarien bisita jasota ere. Argi dute zer nahi duten: "Adeitasunezko eskola bat nahi dugu, umeak errespetatzen dituen, eskola txikien abantailekin: adin tarte ezberdinetako umeekin nahastutako gelak, eta naturari eta gurasoen parte-hartze zuzenari garrantzia emanda, beste askoren artean".

Pixkanaka doa prozesua. Hurrengo erronka proiektua amaitzea izango da, eta Barrundiako Udalerri aurkeztea.



Barrundiako herritarrak urtarrilean izan ziren Angiozarko (Bergara) eskola txikia ezagutzen. [ESKOLATXIKIAK.EUS](#)

2019KO
INAUTERIE TAKO
ARGAZKI LEHIAKETA
Bidali zure argazkiak!



2016 ko irabazlea ALFREDO LUZARRAGA (Agurain)

Parte hartu:

Antolatzailea:

Saria:

alea.eus

ALEA

ERRI GORA

ESANAK



MIREN LARRION
EH BILDUKO ALKATEGAIA

"Beste alor batzuetan onartuko ez genituzkeen portaerak ezin ditugu onartu kirolean"



GORKA URTARAN
GASTEIZKO ALKATEA

"Trantsizio energetikoak ezin du suposatu dieselaren demonizazioa"



ESTIBALIZ AGIRRE
BATERA LEHIAKETAREN IRABAZLEA

"Gasteizko hainbat leku kuttun biltzen dituen arte-liburua egingo dut"

ZENBAKITAN

Biktimak

Indarkeria matxistaren biktimei laguntza emateko Diputazioak martxan duen Hegoak zerbitzuak mila lagun baino gehiago artatu ditu 2018an, aste honetan zabaldu dituzten datuen arabera. Horietatik, 881 lagun zuzenean edo zeharka tratatu txarrak edo sexu abusuak jaso dituzten adin nagusikoak izan dira, eta beste 78 adingabeak. Bestalde, 652 pertsona lehenengo aldiz bertaratu dira zerbitzura. Hegoak zerbitzuak genero indarkerian espezializatutako arreta eskaintzen die biktimei. Haien bikotekide emakumezkoen aurka indarkeria erabili duten 51 gizonetzko ere bideratu dituzte bertara, terapia psikologikoa jasotzera.

1.035

185.000

Euroak

Artium Museoak 2.085.000 euroko diru laguntza jasoko du Arabako Foru Aldundiaren partez. Iazko partidarekin alderatuta, 185.000 euroan handitu da arte garaikidean egindako inbertsioa. Iaz ere 100.000 euro gehiago jaso zuen Artiumek. Diru hori barne funtzionamendurako, bertako artelanak babesteko zein berritzeko, eta arte garaikidearen ezagutza eta hedapena bultzatzeko bideratuko du Arte Garaikidearen Euskal Museoak.

3.800

Haritzak

Zalduondoko Larresoil izeneko lurzoruan 2016ko haizete gogorrek larriki kaltetuta utzi zituzten pinudiak ordezkatzeko haritzondoak landatuko dituzte. Zalduondoko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak lotutako akordioari esker, kaltetuta geratu ziren sei hektarea modu horretan basoberrituko dituzte. Basoaren jatorrizko izaera berreskuratu eta eremuaren oreka naturala berrezarri nahi dute egitasmo honen bidez.

Rokodromoak "pribatizatu" nahi dituztela salatu dute

Manifestazioa egin dute Gasteizen joan den larunbatean, rokodromoen aferan irtenbide bat galdegiteko. Protestaldiak jarraipena izan du igandean: hainbat eskalatzaile Hegoalde gizarte etxera joan dira, eta azpiegitura erabiltzen hasi dira. Udaltzaingoa protestaldian parte hartu dituztenak identifikatu ditu. Udalak zerbitzua pribatizatu nahi duela salatu dute.



Manifestazioa egin dute Gasteizen, Udalaren jarrera salatuz. ESKALATZAILEAK SUTAN



Lezeagako sorgina. LAUDIOKO INAUTERIAK

Erre beharrean, Lezeagako sorgina omenduko dute Laudion

Lezeagako sorgina da Laudioko inauterietan protagonista, eta, ohiturari jarraituz, urtero su ematen diote inauteri asteartean. Aurtengoan, aldiz, sugarretatik alde egin eta usadioak beste izaera bat hartuko du. Berdintasunaren eta gizarte parekide baten aldeko urratsa eman nahi izan du Udalak: panpinari su eman ordez, aurtengoan omenaldia egingo diote.

Iruzurra egiten ari dira txorrotako uraren kalitatearekin

Ura iragazteko ekipoak etxez etxe saltzen dituen enpresa baten iruzurrezko jokaerari buruz ohartarazi du AMVISAK. Saltzaileek bezeroei esaten diete Gasteizko txorrotako ura "kontsumitu daitekeela, baina ez dela osasungarria". Txorrotako urarekin eta elektrodo batzuekin amarrua egiten dute, ura marroi kolorekoa ateratzen dela irudikatzeko.

Mugikortasunaren elkargunetik alde egin dute hainbat eragilek

Legegintzaldiaren hasieran hartutako konpromisoak haustea eta parte-hartzea albo batera uztea leporatu diote udal gobernari Gasteizko Bizikleteroak, Ekologistak Martxan eta Hegoaldekoak Auzo Elkarte taldeek. Hortaz, 2015. urtetik martxan dagoen Mugikortasun Jasangarriaren Elkargunea uztea erabaki dute, aintzat hartu ez dituztela salatuz.



Eragileek mugikortasun elkargunetik alde egin dute. GASTEIZKO UDALA

Logaritmoak, arkeologo lanetan

San Vicente joko eliza nola eraiki zen aztertzeko puntako teknologia baliatu du Amaia Mesanza topografoak, 12 milioi puntu hartuta. Eraikuntza bost fasetan izan zela ondorioztatu du adituak.

JUANMA GALLEGO

Arabako arte erromanikoaren harribitxia da San Vicente joko eliza (Trebiñu), baina, eraikin historiko guztietan gertatzen den bezala, eraikinaren inguruan bildu ziren istorio asko historiaren iluntasunean geratu dira, betiko galdurik. Halere, ikertzaileek ez dute amore ematen, eta eraikin horietatik informazioa kostatzen ahala kostatzen eskuratzen ahalegintzen dira; batzuetan, duela gutxira arte irudiezinak ziren metodoak baliatuta. Metodologia berri horietako batean dabil, buru-belarri, Amaia Mesanza topografoa.

Gaur egungo zientzian horrenbeste ailegiantzia ekarri dituen diziplinartekotasunaren adierazle da Mesanza: Gasteizko Ingeniaritza Eskolan topografia irakasle izateaz gain, EHUKo Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa taldeko kidea da, eta eraikin historikoak aztertzeko metodologia berritzailea txukuntzen ari da.

Eraikina eskaneatuz, prozesu horretan sortzen diren datu andanatik informazio baliogarria eskuratzen saiatzeko aukera zegoela ikusi zuen adituak. Horri buruzko tesia egin zuen Mesanzak, eta gaiari buruzko liburu bat prestatzen ari den arren, lehen emaitzak *Arqueología de la Arquitectura* zientzia aldizkarian bildu ditu, Agustín Azkarate eta Ismael García-Gómez arkeologoen



Laser eskaner baten bidez aztertu du eliza Amaia Mesanza topografoak. A. MESANZA

"GURE HIPOTESIA ZEN GRAFIKOAN ZEUDEN ERPIN HORIEN ATZEAN ZERGATIA BAZEGOELA"

AMAIA MESANZA, TOPOGRAFOA

batera sinatutako artikulua batean. 12 milioi puntuz osatutako eredu baliatu dute, 5 eta 10 milimetro arteko bereizmenarekin. Artikuluan proposatu dute altxaeren irakurketa estratigrafikoak egitea oso baliagarria izan daitekeela arkeologian, eta San Vicente joko eskuratutako emaitzak balio horren adibidetzat aurkeztu dituzte. Laser eskanerra erabili du Mesanzak oso denbora gutxian

milioika puntu eskuratzeko, eta horietan abiatuta *data mining* edo datu-prospekzioa egin du: datu andana batetik informazioa erazteko balio du teknika horrek.

Datuak landu

Puntu horiek eskuratzeko erraza izan bazen ere, ondoren datu horiek lantzea zailagoa izan zela aitortu du topografoak. "Harri bakoitza neurtu dugu, eta harri guztien forma taula batera eraman dugu: luzera, zabalera, perimetroa, zentroidea edota bi diagonalak, esaterako". Hurrengo pausua sistema "entrenatzea" izan da, algoritmoak sortzeko. Horretarako, Armentian eta Gasteizko Santa Maria katedralean bildutako datuak

erabili dituzte. Funtsean, teknika honen helburua da softwarea gai izatea harri motak bereizteko eta ezaugarri komun batzuen arabera sailkatzeko.


"Horretarako, lehenik eta behin harri bereziak kendu behar izan ditugu: dobelak, arkuak eta abar... modu horretan multzo homogeneoak lortu ditugu".

Lehenik eta behin, harlangaitza eta harlandua sailkatzeko trebatu zuten softwarea. "Aldagai guztiak aztertzen hasita, ikusi genuen horiek bereizteko daturik esanguratsuena altuera zela".

Hortaz, altuera batetik gorakoa harlanduzkoa izango zela zehaztu zuten. Bigarren aldagaia area-diferentzia izan zen. "Harriaren gainazal inguratzailea eta harria bera bereiztea izan zen gakoa. Harria bada, diferentzia txikia izango da, eta, harlangaitza bada, handia". Modu horretan, sistema trebatu dute, sailkapena modu automatikoan egin dezan. Harri guztiak batera jarrita, datu-prospekzioko softwarearen bidez ateratako emaitzen grafikoa erakutsi du Mesanzak. "Hemen erpin



Mesanza, ingeniari ITa eskolan. ALEA



batzuk agertzen dira, eta gure hipotesia zen, noski, erpin horien atzean zergatiren bat bazegoela".

Bost multzo

Hasierako hipotesi hori berretsi egin dute: orotara, ikerketak bost harri multzo ondorioztatu ditu, eraikuntza fase bakoitzaren adierazle. "Estatistikak esan zigun harri horiek guztiak desberdinak zirela, baina, datu hutsekin, nik ezin nuen interpretazio arkeologiko bat egin; hau da, ezin nuen jakin zein den elizaren eraikuntzaren sekuentzia".

Diziplinartekotasunaren mirariak, hor izan du taldeko kideen laguntza: Agustin Azkarate eta Ismael Garcia-Gomez arkeologoak arduratu dira lan horretaz. Datu horien hurrenkera interpretatu dute, eta fase bakoitza elizaren zein tokitan izan zen zehaztu dute. Harri bakoitza sailkatzeko orduan logaritmoek akatsen bat egin dute. "Begara, harri hau dobelatzen hartu du sistemak, baina ez da hala". Dena dela, ikuspegi globala arkeologiaren eta arkitekturaren logikarekin bat dator, bete-betean. Zentzu honetan, metodologia da garrantzitsua: San Vicentejon ireki duten bide honi etorkizun

oparua ikusten dio Mesanzak. "Aurreneko aldia da hau munduan egiten dena", nabarmendu du adituak. Oraingo erronka da metodologia hori eraikin gehiagotan frogatzea.

Argentinako eraikin batean antzeko zerbait egiten saiatzen ari dela aurreratu du adituak.

Kasu hori, baina, desberdina da, adreiluzko eraikina delako. "Hor informazio historikoa ere sartu ahal dugu tartean, garai bakoitzean adreiluak tamaina desberdinetan egiten zirela badakigulako. Gainera, adreiluaren kasuan, altuera baino, luzera da faktore garrantzitsua". Baina atzean dagoen filosofia berdina da: adimen artifizialaren teknikak erabiltzea arkeologoei eta historialariek iragana argitzeko laguntza izan dezaten. Ikerketa artikuluan bertan laburbildu dute horren beharra.

"Zalantzarik ez dago: gurea hasierako urrats txiki bat besterik ez da, baina aukera ematen digu susmatzeko zein den irekitzen den bidearen norabidea: adimen artifizialarena eta sistema adituena". ■■■

Europa gutunetan hausnartzen

Etxepare Institutuak 'Chejov vs. Shakespeare' proiektuaren edizio berri bat sustatu du, Eskozian euskal kultura, arteak eta euskara ezagutarazteko egiten ari den '2019 Scotland Goes Basque' asmoaren barruan.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Chejov vs. Shakespeare proiektua Donostia 2016 Kultur Hiriburutzaren barruan abiatu zen 2016. urtean, eta lurralde eta hizkuntza ezberdinetako idazleek Europaren erronka eta gatazken inguruan gutun bidezko elkarriketa sakon bat izatea zuen helburu. Etxepare Institutuak berreskuratu du ekimena aurtien. Hala, kulturaren bidez Euskal Herriaren eta Eskoziaren arteko harremana estutzea du xede proiektuak, eta kasu honetan Iban Zaldúa eta James Robertson idazleak izango dira protagonistak.

Zalduak (Donostia, 1966) ipuin laburrak idatzi ditu gehienbat, bai eta hainbat eleberri eta saiakera ere. Egun, bere idazle lana irakaskuntzarekin uztartzen du. EHUKo Ekonomiaren Historiako irakasle da, Gasteizen.

Bestalde, James Robertson, bizitzaren zati handiena Eskozian egin duen arren, ez zen bertan jaio, Ingalaterrako Kent konderrian baizik. Ipuin laburrak, poesia, haurrentzako literatura eta eleberria jorratu ditu bereziki, ingelesez eta eskozieraz. Bere testuetan, nazioarteko politikaren, historiaren eta Eskoziako kultura eta hizkuntzaren inguruan interes handia azaldu izan du.



Iban Zaldúa. ELI ZALDUA

GUTUNEN TRUKEA AMAITUTAKOAN, MATERIAL GUZTIA BILDU ETA ARGITARATUKO DUTE

Ekimenaren edizio berrian Zaldúa eta Robertsonek elkarri hamabi eskutitz bidaliko dizkiote, bakoitzak sei. Gutunotan, Europa, identitatea, hizkuntza eta literatura izango dituzte mintzagai, eta trukaketak bi idazleek gai horien inguruan dituzten ikuspegiak ezagutu eta partekatzeko balioko du. Bakoitzak norberaren

hizkuntzan idatziko ditu eskutitzok, euskaraz eta eskozieraz.

Bi idazleek otsailean bertan ekingo diote gutunak elkarbanatzeari, eta Robertson izango da lehena. Uztailean emango diote amaiera elkartrukeari. Gutunen trukea amaitutakoan, 2016an egin zen bezala, idatzitako material guztia bildu eta liburu batean argitaratuko dute. Horrekin batera, Edinburgh Book Festival literatura jaialdian mahai-inguru bat antolatuko dute eta, bertan, proiektuan parte hartu duten bi idazleek gutunetan hausnartutako gaiez jardungo dute, ideia horien inguruko eztabaida irekia sortzeko asmoz.

Proiektua Donostia 2016 Kultur Hiriburutzaren programan egin zen, eta zortzi euskal idazle zortzi nazioarteko idazlerekin jarri zituen kontaktuan bikoteka, eta gutunak bidali zizkieten elkarri hainbat hilabetez: Fernando Aranburu eta Hector Abad (Kolonbia), Laura Mintegi eta Birgit Vanderbeke (Alemania), Angel Erro eta Patrik Ourednik (Txekiar Errepublika), Arantxa Urretabizkaia eta Menna Elfyn (Gales), Bernardo Atxaga eta Bashkim Shehu (Albania), Eider Rodriguez eta Belen Gopegui (Espainia), Harkaitz Cano eta Dubravka Ugresic (Kroazia) eta Luisa Etxenike eta Mircea Cartarescu (Rumania). ■

Onenetan onena, erdi-prezioan baino merkeago.

Orain, OSOA Familyrekin, **GIGA MUGAGABEAK** dituzu **DOAN** 2019ko **asteburu guztietan**.

Eta, gainera, kalitate handiko Internet, mugikorra eta telebista 4k Deskodetzailearekin.

Zatoz Euskaltelera



120
MEGA



20GB
DEI
MUGAGABEAK



PREMIUM
TB_a
4K DEKOArekin



FINKOA
DEI
MUGAGABEAK

GIGA MUGAGABEAK
DOAN
2019KO ASTEBURU GUZTIETAN



19'9€
/hil
6 hilabetez

Kontratatu pakete hau
euskaltel.eus helbidean | Dendetan | 1717an



euskaltel

Zatoz zuntzera 2019/3/15 baino lehen, eta sei hilabetez izango duzu sustapen hau, kontratazio-egunetik zenbatzen hasita. Iraupen-konpromisoa: 12 hilabete. Gero, prezioa 72 €/hil izango da. Ostiraleko 14:00etatik asteleheneko 24:00ak arteko datu-kontsumoak sartzen dira NAHI ADINA GIGA aukeran, eta arrazoiriko erabileraren politika bati du ezarria. BEZA sartuta dago prezioetan. Informazio gehiago, hemen: www.euskaltel.eus

Babesle teknologikoa:



Euskal zinema ate joka

Otsailaren 28an abiatuko da Euskal Zinemaren Astea, eta hamabi lan ikusteko aukera izango da Gasteizko Vital Fundazioa aretoan. 'Errementari', 'Oreina' eta 'Dantza' filmak izango dira, besteak beste, 35. edizioan.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Euskal Zinemaren Asteak 35. edizioa beteko du aurten. Martxoaren 2ra bitartean, 2018an euskal zinemagintzako profesionalek ekoiztu edo zuzendutako lan zinematografiko onenak ikusteko aukera izango da.

Film labur bat eta luze bat eskainiko ditu egunero jaialdiaren egitarauak. Emanaldiak 20:00etan hasiko dira film laburrarekin, eta ondoren, film luzea emango dute. Jaialdiak parte-hartzea bultzatzen duen heinean, emanaldien ostean, aretoan dagoen publikoak film luze eta labur onenei botoa emateko aukera izango du. Sariak amaierako galan emango

dituzte ezagutzera. Saio horretan, era berean, antolakuntzak Gutako Bat saria emango dio zazpigarren arteko Arabako figura nabarmen bati.

Lan zinematografiko onenak

Orotara, hamabi ikus-entzunezko izango dira ikusgai Vital Fundazioaren aretoan. Enrique Reyren *Visibles* film laburrak hasiera emango dio zikloari, otsailaren 25ean, eta jarraian bi Goya sari irabazi

HILAREN 27AN, PELLO GUTIERREZEN 'ZAIN' ETA PELLO ESNALEN 'DANTZA' LANAK ESKAINIKO DITUZTE

dituen Arantxa Etxebarriaren *Carmen y Lola* eskainiko dute. Otsailaren 26an, Gaizka Urrestiren *Mi querido balón* eta Igor Legarretaren *Cuando dejes de quererme* izango dira ikusgai. Asteazkenean, hilaren 27an, Pello Gutierrezen *Zain* eta Telmo Esnaalen *Dantza* lanak eskainiko dituzte.

Otsailaren 28an, Josu Martinezen *Ama* eta Paul Urkijoren *Errementari* lanen txanda izango da. Martxoaren 1ean, David P. Sañudoren *Ane* eta Koldo Almandozen *Oreina* ikus-entzunezkoek beteko dute egitaraua. Zikloa ixteko, martxoaren 2an, Imanol Ortizen *Moda* eta David Gonzalezen *La noche que nos lleva* izango dira ikusgai.

Abonuak eta txartelak

Jardunaldi guztietarako bonuak salgai daude asteartetik. Vital Fundazioaren webgunearen bidez lortu daitezke, 12 euroan. Era berean, Vital Fundazioaren egoitzan eros daitezke, astelehenetik ostegunera, 08:30etik 14:00etara, eta 16:30etik 20:30era, eta ostiralean 08:30etik 14:00etara.

Egun bakoitzerako sarrerak eskuratzeko, bi bide horiez gain, Vital Fundazioaren aretoko txarteldegian salgai jarriko dituzte. Emanaldia hasi baino ordubete lehenagotik, eta 3 euroan, erosi ahal izango dute sarrera bertaratutakoek, beti ere leku libre balego. ■■■



'Dantza' filma hilaren 27an izango da ikusgai.

Tatuajea

KULTURA



DAVID MANGANA

KAZETARIA

Hamalau urte zenituela, ikastetxean *El árbol de la ciencia* irakurri zenuen. Bost urtean behin agian antzerkira joan; eskola-orduak murrizteko balio zuen eta. Filmak klasean ikusi? Irakaslea gaixorik bazegoen edo apaizen mezua –*La misión*, *Ben-Hur*...– azpimarratzeko. Artea? Margolanen izenak eta datak buruz ikasi. Beno, lortu zenuen, txo! Akabo kultura!..

Unibertsitatea, Lanbide Heziketa edo dena delakoa. Lan egin, bidea segi. Denbora badaukazu: esku-eskura telebistaren katebegiak, sare sozialen kartografiarik gabeko nabigazioa... Literatura, antzerkia, zinema, artea...? Hor konpon! Traumen artean lurperatu edo zuk zeuk ikertu. Paradoxikoki, bat-batean konturatu zinen instituzioek babestutako lana hor zegoea. Eleberriz betetako liburutegiak, antzerki zein zinema jaialdi ugari, inaugurazioan baino betetzen ez diren museoak. Erraz saihestu ditzakezun mamuak. Noizean behin, norbaitek engainatuko zaitu "turismoagatik" bisitatzeko.

Beldurra. Errespetua. Lotsa. Mania. Nagitasuna. Interes falta. Aldentzea. Kulturak eragiten dizkizun esan gabeko erantzun batzuk, inolako eskarmenturik gabe sentitzen zarelako. Hezkuntza eta kulturaren arteko zubiak erorita jaio ziren, baina hori orekatzeko



ALEA

zure heroia dago: aisialdia. Eskerrak! Liburu bat ireki baino lehen askoz atseginagoa da garagardoa nola egiten ikastea. Antzerkia? Hobe *escape-room* bat. Zinema, bai noski, jarri *nahitanahiezeran* Netflixa amortizatzeke. Artea... Ikeako altzariak eraikitzea!.

Ez daukat garagardoa egiteko, *escape-room*era joan edo plataformak kontratatzearen ezer kontra (Ikearen kontra bai, hori beste kapitulu batean). Bereganatzea kostatzen zaidana da, harresiz betetako mundu honetan, kulturarekin daukaguna ere onartu beharra. Ez ziguten horren plazeraren giltza eman nahi.

PENTSARAZI EGITEN DIGU KULTURAK. HOR KOXKA. HEZKUNTZA MANDATARIEK EZ DUTE HORI BULTZATUKO

Eta liburu aproposagoak edo idazleekiko tailerrak proposatzen badira ikastetxeetan? Antzerkia...eta musika ere bai!, zergatik ez daude bete beharreko eskolen artean? Zinema...bekatua izango zen hilean behin film bat ikusi eta eztabaidatzea? Artea... museoak hutsik daude, txango gehiago egin, *okupatu!* Ez da denbora galdua izango, Michael Enderen *Momo*-ri kasu egin!

Tatuajeen aurka ere ez daukat ezer. Lehen pirata, mafioso eta musikarien ikurrak ziren. Egun, –sasiteoria besterik ez da– futbolari edo erreality-koen eraginez, azaletan ikusten ditugu, nonahi. Primeran iruditzen zait edozein erabaki estetiko, baina askotan ez dira egiten "erreferente" haien nortasunaz jabetzeko? Eta aisialdiaren plazebo ere, kulturaren hutsunea bete orde, gizarte-epidermisan daramagu nortasun eza adierazteko?

Kulturak pentsarazi egiten digu. Hor dago koxka. Hezkuntza mandatariek ez dute inoiz plazer askatzaile hori bultzatuko. Hobe matematikak praktikatzeko kirol apustuak erraz egiteko, tabernetan kontzertuak murriztu bitartean. Nerabezaroan turismoa eginez bisitatu genuen leku ahaztu hura da kultura. Betiko izango garen ikasleok errebelatu gabe, azaleratu ezinean daukagun aurretik ezabatutako tatuaje kolektiboa. ■

Nobleak lehen, akratak gero

GURE BAZTERRAK



Bastida

Kuadrilla: Arabako Errioxa.

Udalerrria: Bastida.

Biztanleak: 1.377 (2018ko EUSTATen datuen arabera).

Bitxikeria: Donostiako San Telmo museoan dago Bastidako Krismoierromanikoa; 2015. urtean zaharberritu zuten.

ARGAZKIA: PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

"Bastida ez da hiru orritan kabitzen, izatekotan hiru liburutan". Hala idatzi du Miguel Larreina Gonzalez Mahastizaintzako eta Enologiako masterdun eta Arabako Errioxako herrien historian adituak. Larreinari esker dakigu 1.000. urte inguruan, gaur egun Bastida osatzen duen jurisdikzio-ko biztanleria herrixka txikietan barreiatuta zegoela. "Horren bestez, erreferentzia idatziak ditugu Buradon, Tabuerniga, Torrontejo, Erremelluri edo Mutilluriri buruz, eta harrizko nekropoliak, biztanleak ugari zirela erakusten dutenak". Edonola ere, Larreinaren arabera, 1242. urtean agertzen da lehen aldiz Bastida izena idatzita, hain zuzen Fernando III.a erregeak Bastida hiri berria fundatu zuenean.

Erdi Aroan, berriz, herri txikiak ardoaren laborearekin eta salmentarekin jardun zuten, Gas-

teiz zein antzeko hirietan negozioak egiten. Ardogintzak bultzatuta eraiki ziren XVI. eta XVIII. mendeetan eraikin ikusgarriak, elizak, monasterioak edo jauregiak. "Berrogei etxe armarridun baino gehiago daude Bastidan, bere neurriko beste edozein herritan ez bezalako noblezia eta goi leinu kontzentrazioarekin".



Ondare horren garrantzia nabarmendu zuten Eusko Jaurlaritzak, eta kultura ondasun izendatu zuten hirigune historiko osoa, monumentu multzo sailkapenarekin. Halaber, Bastidako Jasokundearen eliza eta Udaletxea Monumentu Nazionalak dira.

Nobleziaren historiaz harago, urte luzez ezkutuan egon den Bastidako iraganaren beste parte bat argitara ekarri zuten duela urtebete herritar batzuek; Bigarren Errepublikara garaian altxatutako libertarioen historia hain zuzen. Hala, 1933an izandako matxinada anarkistakogogortzeko webgunea sortu zuten. Bertan kontatzen da, besteak beste, ordu batzuek lurralde akartan izan zirela Toloño-pekoko lurrak, baina asaltoko guardiek ordena berrezarri orduko mendekuaren itzalluzeak jazartu zituen haietako asko: 1936an faxistek 19 lagun hil zituzten, erdia hiru urte lehenagoko iraultzan parte hartu zutenak.

EMAN ZUEN ARABAKO TXOKO KUTUNAREN BERRI. erredakzioa@alea.eus

Irakurleen txokoa

ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozketak

Irabazleak:

Parralen bazkaria: Maika Casteig Diaz.

Aramaioko bertso saioa: Susana Ibañez de Opacua eta Marta Moliné.

ALEA produktu sorta:

- Adur Aitzol Lamo Saratxo
- Lorea Hernandez
- Maule Urizar Legorburu
- Alberto Bombin
- Iker Martinez de Albeniz



Artepanen gosaria Bi pertsonentzako

ALEAk bi lagunentzako gosaria zozkatuko du, Artepan okindegietako batean ahogozatzeko. Eman izena otsailaren 27a baino lehen.



'Kalaportu' ikuskizuna Sarrera bikoitza

Martxoaren 21ean Principal Antzokian izango den 'Kalaportu' ikuskizunerako sarrera bikoitza. Eman izena martxoaren 6a baino lehen.



Mafalda eta Ezetaerre 2 sarrera solte

Mafalda eta Ezetaerre taldeen kontzertua Gasteizko Jimmy Jazz aretoan martxoaren 1ean. Eman izena otsailaren 26a baino lehen.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak



Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA

Otsailaren 22tik 28ra

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Ane Zugaza

Osteguna 28, 19:30ean, Falerina tabernan.

DANTZA

LAUDIO Dantza plaza

Itxarkundia dantza tadearekin.

Ostirala 22, 19:30ean, Kasinoan.

GASTEIZ 'Korrotik pikutara' hitzaldi eta dantza saioa

'Soka' erakusketaren testuinguruan, hitzaldia eta dantza saioa eskainiko dituzte Gari Otamendik eta Oier Araolazak.

Ostirala 22, 20:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

AMURRIO 'Nahas jolas'

Aiara dantza taldearen ikuskizuna. Erritmo ezberdinak uztartuz, euskal tradizioetik harago doan tradizioa.

Larunbata 23, 18:00etan eta 20:30ean, Amurrio antzokian.

HAURRAK

AGURAIN 'Tomaxen abenturak'

Hamar urte antzerkia.

Larunbata 23, 18:00etan, Harresi aretoan.

GASTEIZ Tor magoa

Magia ikuskizuna eta tailerra. 3-10 urte bitarteko haurrentzat. GEU elkartearen eskutik.

Igandea 24, 19:30ean, San Martin eskolan.



ALEA

GASTEIZ 'Oteizarekin batetik bestera' hitzaldi ilustratua

Bernardo Atxaga eta Oskar Alegriarekin.

Igandea 24, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

BERTSOLARITZA

GASTEIZ Bertso afaria

Armentia ikastolako bertso eskola, Peio Ormazabal eta Iñaki Viñaspre bertsolariekin.

Ostirala 22, 20:30ean, Armentia ikastolan.

ARAMAIO Arabako Bertsolari Txapelketa

Final laurdeneko bertso saioa. Peru Abarrategi, Unai Anda, Andere Arriolabengoa, Manu Bendala, Beñat Garaio eta Xabi Igoa bertsolariak arituko dira.

Larunbata 23, 20:30ean, kultur etxean.

GASTEIZ Bertsokatu txapelketa

Gasteizko sariketa. Unai Anda, Aroa Arrizubieta, Beñat Mujika eta Hodei Renteria bertsolariekin.

Asteazkena 27, 20:00etan, Garraxi tabernan.

HITZALDIA

GASTEIZ Soziolinguistika hiztegi txikia: komunikazioa

Gartzen Garaio, Aitor Zuberogoitia eta Goio Aranarekin.

Asteartea 26, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

IKUS ENTZUN

GASTEIZ '11 baino +'- dokumentala

Euskaraldiaren inguruko esperientziak jasotzen ditu.

Igandea 24, 18:00etan, Adurtzako auzo elkartearen.

GASTEIZ 'Aralar' dokumentala

Ostean, solasaldia izango da Aloña Jauregi, Iban Toledo, Garazi Auzmendi eta Ion Fontenlarekin.

Asteazkena 27, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.



ELKAR

GASTEIZ 'Torlojuak' aurkezpena, haurrentzat

Txabi Arnal Gil eta Edu Zelaieta Antak idatzitako liburuaren aurkezpena.
Larunbata 23, 12:00etan, Elkar denda.

BESTELAKOAK

GASTEIZ Irakurle Kluba

Henry James-en *Aspernen paperak* izango dute solasgai.
Osteguna 28, 19:30ean, Oihaneder Euskarare

Beste batzuk

MUSIKA

GASTEIZ Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Melanie Levy-Thiebautek zuzendutako kontzertua.
Ostirala 22, 20:00etan, Principal antzokian.

GASTEIZ La Macanita

XXI. Mendeko Flamenkoa zikloaren barruan.
Larunbata 23, 20:30ean, Jesus Ibañez de Matauko antzokian.

GASTEIZ Jon Urrutia-Monnot

Jazz Uhinak zikloaren barruan.
Asteartea 26, 19:09etan, Jesus Guridi aretoan.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Voltaire/Rosseau: la disputa'

Josep Maria Flotats eta Pere Ponce aktoreekin.
Larunbata 23, 20:30ean, Principal antzokian.

GASTEIZ 'Ensayo'

Teatro Kamikaze taldearekin.
Osteguna 28, 20:30ean, Principal antzokian.

BESTELAKOAK

GAUBEA Boilurrak bilatzeko bisitaldia

Boliurrak deskubritzeko bisitaldia.
Igandea 24, 10:00etan, turismo bulegotik abiatuta.

GASTEIZ Daddy's Funclub

Funk, soul eta country soinuek osatu dute *You better run* lana. Haiekin batera, Gasteizko I Think Soul taldea arituko da.
Larunbata 23, 20:30ean, Jimmy Jazzen.

Jimmy jazz gasteiz OTSAILA

Os. 22 KOKOSHCA + VULK

Lr. 23 DADDY'S FUNCLUB + I THINK SOUL

MARTXOA

Os. 1 MAFALDA + EZETAERRE

Lr. 2 NUBLIA + MARA (IGOR ARZUAGA)

Lr. 2 DJ LORO & SELEKTAH STEPI

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

BIDEOKLIP LEHIAKETA ASKATU ZURE SORMENA!

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA AURKESTEN DU

BBG

LEHIAKETA

bertsoa bizi gazte

ZER DA BBG?

Arabako gazteen euskarazko talde sormenak bultzatu eta argitara ekarri nahi ditugu, hitzez, doinuaz eta irudiz osaturiko bideoklip lehiaketa honen bidez.

- Elkartu 3-8 lagun saltsero (14-18 urte bitartekoak) eta askatu zuen sormena.

- Bertsoak egin, abestien letrak aldatu edo Rap bat osatu euskaraz, eta bidali zuen bideo klipa Maiatzaren 4a baino lehen bertsoabizi@gmail.com

- Lehiaketaren araudia eta informazio gehiago www.nibanaxarabakoa.eus WEB gunean.

SARIAK

Parte hartzaile guztiek, egun osoko jaia izango dute opari, Maiataren 11an Legutien.

Horretaz gain sari nagusi hauek banatuko dira:

1. BIDEO KLIP ONENARI SARIA

2. NI BANAX ARABAKOA SARIA
(webgunean bozkatuena)

3. BIDEO KLIP ORIGINALENAREN SARIA

4. TXALO-METROAREN SARIA

Talde sarituentzat asteburuko egonaldia izango da Eulaten (Nafarroa), irailaren 6, 7 eta 8-an, kirol abentura, euskara eta sormena ardatz. Urbasa Natur ingurune paregabearen.

**MAIATZAK 11-LEGUTIOAN
BBG EGUNA**

10:30 / AURKEZPENA eta BIDEOKLIPEN proiektzioa · 11:30 / HAMAIKETAKOA · 12:00 / ARABAKO 14-18 urte eskolarteko bertsolari txapelketako FINALA · 14:30 / HERRI BAZKARIA (plazan) · 16:00 / SARI BANAKETA eta AMAIERA JAIA